

Eliza eta Euskararen aldeko Borroka

Jexuxmari Mujika

Lehenik lantxo hau nola sortu den eta bere zergaitiak zeintzuk izan diren agertu nahi nuke. Gentzan, Pastoral Teologiarako Ikastetxean mahain inguru bi egin ziren, Euskal Kulturari buruz lehena, eta Eliza eta Euskal Kulturari buruz, bigarrena. Bi mahain inguruak Elizaren euskal kulturaren aldeko borroka bultzatzera zuzenduak ziren, noski. Batean bezala bestean eztabaida luzeak egin ziren. (EGIN egunkariak bigarrenez berri ematean, eliz giroan ohizko denez, eztabaidarakoan lainotan ibili eta gutxi sakondu zela ezarri zuen). Eliz inguruko kontuak gure herritxo honetan oso modan daudenik ez daiteke esan, bainan, kontuak kontu, euskal herriari dagokion edonolako gaiari adarretatik heldu ustean hasi orduko teoria hutsean geldi ohi izatea, leporatzen zaio, kasurik onenean ere.

Egia ala ez, lantxo hau pentsatzean praktikotasunari begiratu nahi izan zaio.

Nola burutu denari buruz: ondoren daukazun galdekizun labor bezain zabal hori hogeit bat laguni bidali zitzaie. Eliz instituzioarekiko hurbiltasunari dagokionez, hiru motako jendea aukeratu genuen: 1.- Eliz instituzioaren barnean arduradun nagusi gertatzen den zenbait; 2.- Eliz inguruko jendea, baina Euskal kulturaren borrokan ari direnez ezagunak; 3.- Euskal borrokalari laiko zenbait, kristau ala ez.

Ikuspegi ezberdinez gaiari helduko ziotenak komeni zirela pentsatu zen. Adibiderako, gotzai batek eta, kristau izan edo ez, Eliz estrukturaren barnean zer esan gutxi duen haren diferente helduko diote gaiari.

Galdekizunak, egia esan, ez du arrakasta gehiegirik izan. Ez da harritzeko. Euskal borroka, kulturarena ere, elizpetik irtena da aspalditxo, zorionez, Kezkagarri ere bada, ordea, zeren Elizaren instituzioak, herri ikuspegi hutsez begiratuz ere, indar izigarria du oraindik, eta zeresan haundia izanen du tratatzen ari garan gai honetan. Gogora, besterik gabe, ikastetxeak.

GALDEKIZUNAK

- 1.- Gure kultur eta izkuntzarekiko Elizaren egungo jokabideaz, zer inpresio duzu?
- 2.- Egungo Euskal Herrian Elizari euskal izenak zer nolako izana eskatuko lioke gutxien gutxienez?
- 3.- Konkretuki euskararen borrokan zer eskatuko zenioke?

ERANTZUNAK:

ELIZA ETA EUSKARA.

Oinharrizko zenbait ohar.

- 1.- “Eliza” esatean, Eliza “instituzionala” adierazten dela iruditzen zait; eta horrela adituko dut nik ere. Instituzio hori agertzen dute herriaren aurrean: Diozesiak eta beraien aparatu guztiak, Parrokiek, Erljiosoen Probintziek eta horien eliza publikoek, Eliz Kolejioek eta Unibertsitateek ...
- 2.- Euskal Herriko Eliza esatean, berorren osotasunean hartzen dut: eta beraz, Euskal Herri osoko Eliza, bost Diozesitan banatua. Honetan zera esan behar da:

Euskarari dagokionez bereziki, egoera eta dinamika arras arras ezberdina dute herrialde ezberdinok.

Euskal Herriko Elizak ez du bateratu hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko bere "politika", Euskal Herria bere osotasunean hartu ere ez duelako.

2.- Ondorio gisa, Diozesi batetatik bestetara, eta Diozesi bakoitzaren barruan ere, euskararekiko jokabideak ezberdinak nabari dira.

1.- Eliza eta beronen euskararekiko jokabidea gaurregun.

Nahiz eta galderan euskarari eta euskal kulturari, biei buruz geldetzen den, euskara bakarrik hartuko dut kontuan, jakinik, hori bai, euskal kulturaren adierazpenaren oinharrian eta sustraian dagoela hura. Baina ez dira gauza berbera.

Eliza bezalatsuko beste erakundeetan baino gehiago irakasten, lantzen eta erabiltzen da euskara oraindik gaurregun ere. Alde honetatik euskararen gaurko dinamikan nolabait eredu eta eragile da Eliz instituzioa.

Baina jokabide hau:

pragmatista da: pastoraltzarako egokia edo beharrezkoa duen neurrian erabiltzen du, baina ez Euskal Herriaren hizkuntza eta kulturabide bezala (Seminarioetan irakatsiko du, baina askozaz gutxiago edo batere ez kanpoko kolejoetan; katekesiarako euskara erabiliko du, baina askozaz gutiago edo batere ez Instituzioaren barneko harreman ofizialetan, edota Gotzainen edo apaizen bileretan, edota Erlijosoen komentuetan.

Euskarari buruz erabaki partzialak hartzen ditu Elizak, unean uneko premiari edo eskabideari erantzunaz; baina ez du programa orokorrik.

Horregatik, sarritan Elizaren jokabideak **oportunista** ematen du.

Ez da **bateratzailea**. Euskal Herria hizkuntzaren aldetik desintegraturik dagoelarik eta egoera diglosiko larrian, Elizak ez du euskara onhartu Herri horren nortasunaren baietzaile bezala. Horregatik ez du herrigintzarako euskara erabiltzen, eta

desintegrazio eta diglosia horri eusten dio bere jokabidez.

Jokabide hau nabarmenago agertzen da bi puntu hauetan: Elizak ez du, hastapen bezala, euskara batua onhartu, Euskaltzaindiaren bidetik halegia; euskara bera, pastoraltzan eta Eliz bizitzan, noiz, nola eta non erabili, Euskal Elizak (osotasunean harturik) ez du inolako batasunik eta erizpide bateratu eta finkorik.

Motza eta azalekoa da egitetan. Bereziki berari dagokion erlijio zientzien (erlijio historiaren, erlijio filosofiaren, erlijio etnologiaren, erlijio soziologiaren) eta teologiaren alorra ez du Elizak aski landu eta pobrea da, euskaraz batez ere. Eta katekesirako, liturgiarako, etab. erabiltzen dituen materialeak ere gehienetan **itzulpen hutsak dira**.

Alde honetatik euskal kultur alor nagusi baten ikerkuntz lana falta da, alor horretako euskara espezialduaren hutsunea dago eta sormena edo kreatibitatea eskasa da.

2.- Euskal Elizaren izena eta izana.

Euskal Herriko Elizak “Euskal Eliza” izena hartuko badu, orokorki puntu hauk bete behar dituela uste dut, guttienez:

- a) Euskal Herria bere osotasunean onhartu eta aitortu, hitzez eta egitez. Euskal elizgintzak euskal herrigintzaren dinamikan sartu behar du. Eta Elizak Herri desintegratu honen **bateratzaile** izan behar du. Horretarako aurrenik Euskal Elizak berak **batua** izan behar du.
- b) Euskal Herriaren nortasuna eta batasuna zaintzeko eta lantzeko, euskara eta euskal kultura dira abiapuntu eta oinharri. Euskal Herriaren herri, kultur eta hizkuntz integrazioa, beraz, euskararen eta euskal kulturaren “**liberaziotik**” doa. “Euskal Elizak” liberazio honen alde burukatu behar du, horren arabera bere jokabideak bideratuz.

- c) Elizaren aldetik euskarak lehenikako ofizialtasun teoriko eta praktikoa behar du Euskal Herrian, nahiz eta unean uneko eta lekuan lekuko jokabideak ezberdinak izan.
- d) Euskal Herriko Elizak "Euskal Eliza" izena mereziko baldin badu, Euskal Herriak jasan duen hizkuntz eta kultur zapalkuntzan Elizak berak izan duen parteagatik barkapena eskatu behar dio Herri honi.

3.- Euskararen aldeko borroka eta Eliza.

Elizak onhartu eta bereganatu egin behar du borroka hau, ez kultura gidatzea bere egitekoa duelako, eta bai oraingo egoera hau zapalkuntzaren ondorioa delako. Euskal Elizak batua eta bateratzailea (integratzailea) izan behar baldin badu, ez du integrazio hori neutraltasunaz egingo, euskararen eta euskal kulturaren aldeko aukera eginaz baizik, nahiz eta hizkuntz eta kultur programa politiko konkretua egitea bere lana ez izan.

1) Irakaskuntza mailan.

Eliz kolejioek euskarari egindako okerra ordaindu behar dute: gaurregun, euskal kultura oinharri dutela, euskal Herriaren integratzaile izan behar dute.

Euskal Teologi Fakultate bat, Euskal Eliza osoarentzat.

Euskal Institutu bat, erlijio alorraren ikerkuntzarako.

2) Elizkizunetan.

Euskara erabiltzekoan, ^{ez} horren egoera sozialari bakarrik, eta bai dinamika sozialari begiratu behar dio.

Liturgiako hizkuntza dela eta, kristau herria bi komunitatetan banatzetik libratu behar du, hortik ere kultur eta hizkuntz integrazioa bilatuz, euskara abiapuntu eta oinharri delarik.

Liturgi liburu egokiak euskaraz eman eta sortu behar dira.

Liturgiak ere, Euskal Herrian arrotz sentitzen direnei, kanpotik etorriak direlako edo, bertakotu beharraz mintzatu behar zaie, kristau anaiartea sortzeko.

3) Erakundetan.

Eliz Probintzia sortu; Iparraldeko Dioziesiarekin lotura organiko batzu gutienez.

Erlijosoen euskal Probintziak, Euskal Herri osoak.

Apezpikuek euskaldunak izan behar dute, eta euskaraz beren kulturaren eta egitekoaren mailan dakitenak.

Eliz erakunde guztietan, eliztarrekin harremanik izan behar duten guztiek, euskaraz egoki jakin behar dute.

Paulo Agirrebaltzategi

* * *

Iglesia salvadora u opresora ... en referencia concreta al euskera y a la cultura vasca.

Escribir desde Navarra sobre lo vasco, sobre la cultura vasca, la lengua vasca, sobre lo que la Iglesia, o los curas puedan o deban hacer con relación a todo eso, entiendo que tiene unas connotaciones especiales.

Del año 36 al 48 estudié para cura en el Seminario de Pamplona. Durante todos esos años no tuve una clase de vasco (yo no lo hablaba, ni lo hablo), ni nadie nos explicó nunca nada de lo que pudiera afectar al pueblo vasco. Ni siquiera desde una perspectiva que ahora llamaríamos navarrista tuvimos una clase sobre historia del Reino de Navarra. Navarra, gestora de la cruzada, no sólo no era vasca, sino que en tanto era Navarra, en cuanto era española. De ahí que ni siquiera la historia de Navarra se nos explicara. Para nosotros lo vasco era igual a perverso. Nosotros éramos esencialmente católicos